

## **BALIO PROPOSAMENA:**

Balio proposamena bezeroek gure produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da eta lehiakideengandik bereizten gaituena. Gure negozioa ezberdintzeko, honako ezaugarri hauek ezarri dizkiogu gure jatetxeari:

**PREZIOA:** Gure helburua gure jatetxea adin guztietako jendearen eros ahalmenen barruan egotea da, pertsona guztiek gure janariaz gozatzeko.

**DISEINUA:** Gure kebabak diseinu garbiago eta modernoago bat izango du, instalazioetan zein jakietan, beste jatetxeekiko.

**ESKURAGARRITASUNA:** Hondarribian helduentzako edo eros ahalmen ertain/altuko jatetxe asko daude. Hondarribin ez dago gazteek duten erosmen ahalmen baxurako moduko jatetxerik. Hori dela eta, jatetxe hau herriko gazteentzat eta eros ahalmen baxuagoa dutenen eskura ere egongo da.